

## JOLASAK

Deskribapena: Pariseko hainbat irudi ageri dira bideoan eta ondoren Luxenburgoko lorategia; jendea xakean jolasten ikus daiteke. Xake piezak bata bestearen aurka puskatzen ikusten dira eta Magnus Carlsen munduko xake txapeldunaren irudia. Azkenik, oilar bat agertzen da xakean jolasten eta partida irabazten ari da.

Kike (off ahotsa): Parisen parke eta lorategi asko daude, baina Luxenburgoko lorategia da guztietatik ederrenetarikoa. Bertan gauza ugari egin daitezke baita xakean jokatu ere. Pertsona askorentzat, xakea, mahai joko bat baino askoz gehiago da; estrategia, adimena eta abilezia uztartzen dituen kirola, hain zuzen. Magnus Carlsen norvegiarra da munduko xake txapelduna, eta postu horretara iristeko seguru gauza bakarra duela buruan. Baina ez dago munduko onena izan beharrik xakeaz gozatzeko.

Deskribapena: Kike mahai baten inguruan eserita dago beste hiru pertsonekin batera. Musean jolasten ari dira. Kikek ordago bat botatzen du.

Kike: “Aizue, baina xakea ez diren beste joko batzuk ere badaude; karta jokoak, esate baterako.”

Jolaskide bat: “Enbido!”

Deskribapena: Kikek buruarekin ezezkoa egiten du eta segidan, dominora jolasten agertzen dira.

Kike: “Dominoa.”

Deskribapena: Kikek buruarekin ezezkoa egiten du eta orain partxisera jolasten agertzen dira.

Kike: “Partxisa!”

Deskribapena: Kike bakarrik dago gurutzegraman baten aurrean.

Kike: “Edo gurutzegramak.”

Deskribapena: Gurutzegraman zentratzen da. Grafismo bitartez gurutzegraman ikusten dugu.

Kike: “Ea, ea, hauxe! Giza taldea, bost hizki... Hara! Tribu.”

Deskribapena: Idatzi egiten du eta grafismo bitartez gurutzegraman “tribu” hitza osatzen da.